

Euskal Konfederazioa ez dago gustura EEPk eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzekin

LAPURDIKO, Nafarroa Behereko eta Zuberoako euskalgintza biltzen duen Euskal Konfederazioa haserre agertu da Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta Eusko Jaurlaritzak iaztik hona diru-laguntzak ez dituztelako emendatu. Konfederazioak adierazi duenez, “EEPk berak saihestezintzat jotzen dituen eragileak behar bezala lagundu gabe, euskararen gainbeherak segituko du”.

EEPk 1.200.000 euro banatu ditu eta Eusko Jaurlaritzak 400.000 euro. 2012an lehenengoak 1.160.000 euroko laguntza eman zuen eta bigarrenak 440.000 eurokoa. Euskal Konfederazioak diru-laguntzetan jaitsierak izan dituzten bi alor nabarmendu ditu. Seaskak, ikasle kopuruak gora egin arren, 25.000 euro gutxiago (380.000) jaso ditu aurten. Konfederazioari harrigarria egin zaio jaitsiera, kontuan izanda EEPren hizkuntza

politikan lehentasuna belaunaldi gazteak direla. Frantziako Gobernu sozialista eta Eusko Jaurlaritzak gogor kritikatu ditu ikastolen egoitzen aferagatik eta horren ondoren laguntza txikitzeagatik. Ikas Bik eta Biga Baik, hurrenez hurren, 15.000 euro eta 30.000 euro besterik ez eskuratu izanaz galdegin du Konfederazioak.

Euskalgintzak azpimarratu duen bigarren alorra euskal hedabideak dira. Konfederazioaren ustez, EEPk hedabideak euskara berreskuratzeko ezinbestekotzat jotzen dituela kontuan hartuta, ulergaitza da iaztik laguntza %4 jaitsi izana. Laguntzak jaso dituzten hedabideak ondokoak izan dira: Kanaldude (67.200 euro), Herria (40.800 euro), Ipar Euskal Herriko Hitzak (24.000 euro), kazeta.info (24.000 euro), TVPI (43.200 euro), Info7 (4.800 euro) eta Radio Kultura (28.800 euro).

Bahea

Txerra Rodriguezek Garaigoikoa blogean esanak:

“Framing berriaren ideiarekin bat, azterketa egin du Iñakik [Martinez de Lunak]. Euskarak komunikabideetan duen presentzia aztertu du; hobe esanda, egunkarietan duen presentzia.

Ikerketa horren emaitzak argigarriak dira. Euskara ez da lehentasunezko gaia egunkari gehienetan, bigarren mailakoa baizik. Hala ere, gai tematia da. Kutsu ezkorreko ukitua dute hizkuntza-politikako eta lan munduko albisteek. Jai aldarrikapen eremuari lotuta dauden albisteek kutsu baikorragoa dute. Izaera ludikoari eta norberaren hautu askeari lotuak dira erakargarrienak. Premia sozial nagusietatik lekutan dauden kontuak dira eta, beraz, erakargarritasun apalekoak.

Zer pentsatua ematen du. Eta Iñakik dioenarekin bat nator: Pentsatu bat eman behar zaio giro euskaltzaleetan egun erabiltzen den komunikazio estrategiari. Ezta?”

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Naval: Europar Batasunetik Euskal Herrira, Madrildik igarota

EUROPAKO BATZORDEAK Espainiako Estatuari eskatutako ontzigintza enpresei 2007 eta 2011 artean *tax lease* hobariaren bidez emandako diru laguntza publikoak itzultzeko. Laguntza horiek ontziak egiteko finantzaketa eskaini zuten inbertitzaileek itzuli beharko dituzte (bankuek eta inbertsio funtsek), eta ez ontzigintza enpresek. Kopurua zehaztu ez den arren, 2.000 milioi euro izan daitezke. Diru hori Espainiako Ogasunean sartu behar da. Hain justu, Espainiako erakunde hori izango da zifra zehatza zein den erabakiko duena, baita dirua zein inbertitzaileek itzuli behar duen eta nola egin behar duen erabakiko duena ere. Ondorioz, garai horretan ontzigintza finantzatu zuten inbertitzaileek dagokien kuota ordainduko diote Ogasunari. Euskal ontzigintzako langileek mobilizazioekin segitzeko dute; euren etorkizuna arriskuan dela diote, ontziak finantzatzen dituztenek dirua itzuli behar badute, finantzazio berririk ez delako izango.

Egoera honek berriz ere agerian utzi du subiranotasun nazional, politiko, ekonomiko eta laborala aldarrikatzeko beharra; gure sektore ekonomiko eta industria estrategikoen inguruan erabakiak hartzeko eskubidea, alegia. Laguntza publikoen kasuan, beste hainbat arlotan bezala, bistakoa da muga: EBk erabaki eta Espainiako eta Frantziako Estatuak betearazi egiten dute, euskal herritarren iritzia bazterrean utziaz. Espainiako eta Frantziako Estatuak defendatzen dituzten interesak, jakina, ez dira euskal herritarrenak. Ontzigintzan, Euskal Herriak sektore estrategiko hori indartu behar du, garapena eta berrikuntza behar dira mundu mailan lehiatu ahal izateko. Euskal inbertitzaileak engaiatu beharko liriateke milaka familia mantentzen dituen ontzigintza sektore lehiakorari eusteko bidean irtenbideak aurkitzeko.

Juan Mari Arregi

